

80 urteko zauria

Durangoko eta Elorriko bonbardaketatik 80 urte pasatu direnean, oroimenerako eta justiziarako inoiz baino pauso gehiago ematen ari dira. Durangoko Udalak kereila jarriko du bertako auzitegietan. Horretarako, Jon Irazabal Gerediaga elkarteko historialariak eraso horren inguruko txostena osatu du, egileak identifikatuz. Bide horretan, lekukoen transmisioak ere garrantzi berezia hartzen du. Zauriak zabalik dirau. > 2-9



anboto

**DURANGALDEKO
ASTEKARIA**

2017ko martxoaren 31a
15. urtea
671. alea

www.anboto.org

TOKIKOM



MARIA GONZALEZ GOROSARRI
Kazetaria

Umiliatuen etsipena

1989an, hamaika urte nituela, Durangoko Udalak Iratin antolatutako udalekuetara joan ginen klasekide batzuk. Han, begirale batek inork ez zekien zerbaite esan zigun: 1937an faxistek Durango bonbardatu zuten. Iratitiek bueltan, amamari galdetu nion:

- “Egia da Durango bonbardatu ebela?”

- “Baina gerran...”, den-dena onargarriztat jo behar izan zuten sasoiari.

- “Ba, Araceliren semeak eta Zabalarrak musika talde bat egin dabe eta bonbardaketaz kanta bat daukie.”

- “Zertarako!”, umiliatuen etsipenaz.


Hamaika urtegar ez nuen erantzuten asmatu Martxoak 31 musika taldearen ibilbideak belaunaldi bat kontzientziatzeko balioko zuela. Egunen batean justizia eskatuko zuten gazteria trebatzeko. Durangoko Udala faxistak epaitzeko Argentinako kereilara batu zedin indar zibila osatzeko. Azken batean, hildakoak ahanzturaren hobi komunetik aterako ditugula zin egiteko. Hau da, haiek 1937an borrokatu ziren aldeko ideiak gure egin ditugula.

Aurten, 80. urteurrenean oroimena berreskuratuko badugu, M-31 musika taldeari ere zor diogu: Alberto Gallego Zabala, Andoni Ruiz Larringan, Iban Gorriti, Iokin Elortza eta Jonan Hernández.

Aldiz, martxoaren 31n, Durangoko Udalak gerran hil ziren faxistak borrokalari antifaxistekin batera omentzen jarraitzen du kanposantuan, erasotzaileak eta erasotutak berdinduz. Durango 1936 Kultur Elkarteak hamar urte daramatza udalari kanposantuko ekitaldi horretan faxistarik ez omentzeko eskatzen. Oroimenaren berreskurapenagaz batera, umiliatuen etsipena ere geure-geurea dela egiaztatzen dugu.

“Durangon bonba su-eragileak bota zituztela baieztatu dugu; beraz, Gernika esperimentu beraren bigarren fasea izan zen”

Gerediaga elkarteko historialariak Durangoko Udalak jarriko duen kereilako txostena idatzi du



Jon Irazabal, Andra Marian bonbardaketaren inguruko argazki erakusketan.

>M31 Jone Guenetxea

Durangoko bonbardaketaren inguruan baten batek ikertu badu, hori Jon Irazabal (Iurreta, 1960) da. Urteetan hainbat dokumenturen bidez erasoaren inguruko datu ugari bildu baditu ere, azken asteetan Madrilgo eta Erromako artxiboetan aurkitutako informazioak hainbat zalantza argitu dizkio. Datu horiek guztiak Durangoko Udalak bonbardaketaren inguruan auzitegiaren jarriko duen kereilako txostenean batu ditu Irazabalek.

Durangoko bonbardaketaren inguruko ikerketa egin duzu udalak jarriko duen kereilarako. Zer da zehazki ikertu duguna? Txostenean jaso duguna da nortzuk izan ziren eraso horren

ideologoak, eta baita nortzuek gauzatu zuten ere.

Nortzuek planifikatu zuten bonbardaketa hori?

Vigón teniente koronelak, Francoren abiazioako arduradun nagusi Alfredo Kindelan jeneralak, Legión Condorrek Hugo Sperrle jeneralak eta Richthofen Legion Condorrek Estatu Nagusiak. Lau pertsona horiek planifikatu zuten bonbardaketa. Jakina, Mola jeneralak eta Francok berak bazuten honen berri, eta beraien onespina zuen. Beraz, bien ardurapean egin zen bonbardaketa.

Zeintzuk ziren plan horren zehaztasunak? Bonbardaketa ofentsiba orokor baten barruan kokatuta zegoen. Bizkaia, Santander eta Asturias

menperatzeko eraso handi bat prestatu zuten. Erasoaldi horretan argi eta garbi esaten da bonbardaketak egin behar direla “zibilak aintzat hartu barik”. Beraz, 1932ko Ginebrako ituneko gerraren inguruko araudiaren aurkako erabakia izan zen.

Nola antolatuta ziren?

Momentu hartan Francori laguntzen zeuden italiarrek Guadalajarako bataila galdu zuten. Ondoren, beraien batailoi eta agintariak berrantolatzeari ekin zioten. Berrantolaketa hori egin bitartean, Italiako Aviación Legionaria Alemaniako Legión Condorrek beste unitate bat bezala funtzionatzen hasi zen. Aginduak Legión Condorretik jasotzen zituzten. Orduan, Aviación Legionariari Durango bonbardatzea agindu zioten. Zehazki, 24 taldeko 214 eskuadrilari eman zioten agindua.

Nondik abiatu zuten erasoak?

Sorian zuten basetik Savoia 21 motatako lau hegazkin bonbaketari irten ziren. Hegazkin horiei Logroñon CR 32 motatako bederatzia ehiza-hegazkin batu zitzaizkien, eskolta modura. Bonbaketaria hegazkin astuna da, erraz botatzeko modukoa, eta horregatik zetozen eskolta emanda. Bonbaketarien izena Pipistrelli edo saguzarra zen, eta ehiza-hegazkinena labezomorroa. Batek labezomorro bat zeraman marraztuta, eta besteak saguzar bat.

Hegazkin horiek guztiak heldu ziren Durangora?

Ez. Zorionez, bonbaketari batek bidean arazoaren bat izan zuen, eta Sorriara itzuli zen. Hegazkin horrek 580 kilo bonba zeramatzan. Durangora heldu izan baltiz, askoz jende gehiago hilko zen. Goizeko bonbardaketak Kurutziazagari hasi, eta Ezkurdinaraino ez zuten etenik izan. 350 metroko tartea bonbardatzea planifikatuta zuten. Beraien helburua bete zuten. Lekuko batzuen dokumentuen arabera, bonbardaketak zazpi minutu

iraun zuen. Hildako gehien Andra Mariko eta Jesuitetako elizetan izan ziren.

Arratsaldeko bonbardaketaren egileak ere beraiek izan ziren?

Arratsaldean hegazkin berberak bonbardaketaren ostean, Laugarrenaren matxura ezin izan zuten konpondu. Beraz, goizeko bonbardaketaren ostean, Sorriara itzuli ziren. Arratsaldean Zeharkalea eta inguruak hartu zituzten erreferentzia moduan. Eurekin batera zazpi ehiza-hegazkin etorri ziren.

Ehiza-hegazkinen hainbat lagun hil zituzten metrailatuta.

Bai, arratsaldean ehiza-hegazkinak oso baxu zetozen, lekuko batzuek pilotuen aurpegiak ikusteraino. Hainbat pertsona metrailatu zituzten. Horrek erakusten du pilotuek argi ikusi zutela noren kontra zebiltzan: umeen kontra, emakumeen kontra... eta kontziente zirela helburua zibilak zirela.

Pilotu guztiak italiarrak izan ziren?

Bai. Teorian italiarrek ez zuten gerran parte hartu. Beraz, pilotu guztiak boluntario moduan aritu ziren, eta bakoitzak ezizen bat zuen. Esate baterako, Delfino Fratini pilotuaren ezizena Constantino D'Angelo zen.

Bonbardaketaren egile guztiak identifikatu dituzue?

Denen izenak lortu ditugu, baina ez izen batzuk ez. Eta pilotu baten ezizena dugu, baina ez bere identitate erreala.

Arratsaldeko bonbardaketan tren geltokia ere suntsitu zuten.

Arratsaldean, goizean parte hartu ez zuten 213 eskuadrilako hegazkinak etorri ziren, eta hauen helburua Durangoko geltokia izan zen. Tailerrak, trenbideak, makinak, bagoiak... Hori, neurri batean, helburu militarra izan zen.

Beraz, martxoaren 31n bi eskuadrila aritu ziren Durangaldean.

Goizean, Soriatik eskuadrila bi irten ziren. 213ko bost bonbaketari eta 214ko lau (bat itzuli egin zen). Logroño parean beraiekin 18 ehiza-hegazkin batu ziren. 213ak Elorrio bonbardatzeko agindua zuen, eta 214ak Durango. 213ak bederatzia eskolta zeramatzan eta Durangoko beste

hainbeste. Arratsaldean, 214a Durangora abiatu zen eta 213a banatu egin zen. Batzuk Elorriora joan ziren, eta besteak Durangora, tren geltokia txikituzera.

Txostenean, bonbardaketaren eraginez hildakoen inguruan ere ikerketa egin duzue.

300 hildako identifikatuta daude. 60 inguru, aldiz, ezezagunak edo izenik gabeak dira. Azkenengo argitalpenetan 336 hildako izan zirela esan izan da. Inguru horretan egon daiteke. Gertatu izan da Durangoko hildako moduan agertzea, baina errealtatean zaurituta Otxandio frontetik Bilbora eramandakoak izatea. Bilbon hiltzera, Durangoko bonbardaketan hildako moduan agertzea izan daiteke. Baina, kasu oso puntualak dira. Badiugu batzuk, familia-koek izena emanda, ezezagunen artean apuntatuta egotea eta birritan zenbatuak izatea. Kasu zehatz horiek aztertu beharra dago.

Kalte materialen inguruan, zein datu jaso duzue?

229 etxe kaltetuak izan ziren. Durangon. Horietatik 70 osorik bota behar izan zituzten, eta bostetik zati batzuk. Garai hartan frankistek eurek egindako balorazioak dioenez, eraikinetan 4.239.901 pezetatakoak izan ziren kalteak. ‘Regiones devastadas’, Francoren departamentuak 1939an egin zuen balorazio bat izan zen.



Durangoko bonbardaketaren irudia, airetik aterata. Gerediaga elkartea.

Madrilgo eta Erromako artxiboetara bidaiatu duzu azken asteotan, informazio bila. Orain arte ez zenekien zein datu eza-gutu ahal izan duzu?

Martxoaren 31ko goizean bonba su-eragileak bota zituztela baieztatu dugu. Beti izan dugu zalantza hori, eta argitu dugu. Gutxienez, 20 kiloko 12 bonba su-eragile jaurti zituzten. Beraz, horrek esan gura du Gernika esperimentu berdinarekin bigarren fasea izan zela. Gutxi izan ziren, baina desberdinak. Gernikakoak ugariagoak eta txikiagoak izan ziren. Bestalde, zehazki erasoak gauzatu zuten izenak finkatu ditugu. Datu

“**Ehiza-hegazkinak oso baxu zetozen, lekuko batzuek pilotuen aurpegiak ikusteraino**”

“**Teorikoki italiarrek ez zuten gerran parte hartu, beraz, pilotuak boluntarioak ziren**”

hauek Erromako artxiboetan aurkitu ditugu. Hegazkin bakoitzak zein hegaldi egin zuen eta nortzuk zeuden erregistratuta jasota dute, eta liburu hori lokalizatu dugu. Nobedade moduan, bonbardaketa gauzatu zutenak hiru hegazkin bonbaketari izan zirela jakin dugu, eta ez lau edo bost, esan izan den bezala.

Zibilen kontrako erasoak izan zela argi geratzen da txostenean.

Argi geratzen da ez zutela helburu militarrik. Helburua zibilak ziren. Bonbardaketaren funtzioa proba egitea zen, euren bonbak probatzea. Orain lau bat urte Ristofen txosten sekretu bat agertu zen Alemanian. Bertan azaltzen zuten bonba bakoitzak zein kalte eragin zuen. Durangoko, Gernikako eta Eibarko bonbardaketak aztertzen ditu. Bestalde, beldurra sartzeko funtzioa dago. Zibilen artean beldurra zabaltzeko Eusko Jaurlaritza errenditza bultzatu zezakeela pentsatzen zuten. Estrategia militarren barruan eztabaida handia zegoen gai honen inguruan.

Informazio honegaz guztiagaz, zein ondoriotara heldu zara?

Badut teoria bat. Urtebete lehenago Hitlerrek plan bat aurkeztu zien Frantziari eta Ingalaterrari, gerra mugatzeko. Bonba su-eragileak, gas bonbak eta bonba toxikoak mugatzea gura ei zuen. Gerraren gunea edo espazioa ere mugatzea planteatu zien

1936ko martxoaren 31n, urtebete lehenago. Fartsa bat zen. Bere burua bakezale moduan azaldu gura zuen, baina bitartean armatzen ari zen. Ingalaterrak eta Frantziak ez zioten jaramonik egin, eta handik urtebete zehatzera, Durangoko bonbardaketa gauzatu zuten. Uste dut, neurri handi batean, Durango horrela bonbardatu zutela, Frantziako eta Ingalaterrako gobernuei erakusteko bera zer egiteko gai zen. Zentzu horretan, Durango eta gero Gernikan bere estrategia berriak azaldu gura izan zituen. Hasierako planifikazioan, egun batzuk lehenago hasteko asmoa zuten, baina alemanek esan zuten martxoaren 31n izan behar zuela. Egun horretan egongo zirela prest.

Piloturen bat bizirik egon daiteke?

Guztira, 42 pilotuk parte hartu zuten bonbardaketan. Ez dakit baten bat bizirik dagoen. Egoitekotan, 100 urte inguru izan beharko lituzkete. Bartzelonako 1938ko bonbardaketaren kasuan erasoak gauzatu zuten pilotuetako bat bizirik dago.

Pilotu hauek zein ibilbide militar izan zuten?

Francok kondekoratu egin zuten, baina hori ohikoa izaten zen. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Italiako armadan jarraitu zuten hainbatek, eta oherko aipamenekin erretiratu ziren asko.



“**Itziar ahizpak ez zeukan zauririk ere, baina gasak edo eztandak hil zuen. Jesuitetan, 27 hil ziren eta, euren artean, meza ematen zegoen abadea**”

MAÏTENA BELAUSTEGIGOITIA | Durango, 1923-2013

“**Zazpi urte baino ez nituen arren, zarata eta beldurra gogoratzen ditut. Jendea arineketan babeslekuetara joan zen**”

JAVIER GOROSARRI | Durango, 1929



“Beti Anboto mendira begira egoten ginen, ea hegazkinik bazetorren beldurrez”

Bonbardaketa eta errepresioa familian zelan transmititu diren azaldu dute Martin Barreñak, alaba Maitek eta biloba Itsasok



Maite, Martin eta Itsaso, Tabirako parkean.

> M31 Markel Onaindia
Erreprezio kate luze baten biktima dira Barreñatarrek, harkadetan zehar eten ez dena. Bonbardaketaz aparte, erbestea, gerra eta kartzela ezagutu zituzten hainbatetik. Martin Barreña Elizegiren anaia bat eta osaba bi gerran desagertu ziren, adibidez. Martinek 9 urte zituen bonbardaketa hasi zen egunean, eta izu handiz gogoratzen du han bizitakoa. Bere alaba Maite Barreña Oveja eta biloba Itsaso Agirrebengoa Barreñagaz elkartu da solasaldirako, eraso hark eta osteko erreprezioak familian izan duten eraginaz gogoeta egiteko. Etxeko transmisioa ezinbestekoa da memoria bizirik mantentzeko.

Martin, zelan gogoratzen duzu martxoaren 31 hura? Zer egin zenuen erasoan hastean?
Martin: Aita 07:00etan altxatzen zen egunero, eta Izurtzara joaten zen hilerrri ondoko pinudira. Ni izekogaz geratu nintzen gosalzten eta bazkaria egiten. Sire-

nak entzuten hasi ginen. Gero, bonbardaketa hastean, bonbak gertu sentitzen genituen. Kalebarrian bizi ginen, eta bat Santa Susana aurrean jausi zen, gu bizi ginen inguruan. Guri tabike bat jausi zitzaigun etxean, eskailerara. Horregatik, ezin ginen bajatu hasieran. Laguntza eske hasi, dena kendu, eta etxejabeak bajatu gintuen babeslekura. Negarrez egon nintzen. Josefatzuk, nire amaren lagun batek garbitu gintuen. Kalebarrian dena zen hautsa, hondakina, zutabea...

Erasoaren hasierako une hori pasatu eta babesleku batera joan zineten.
Martin: Ordubetera ama etorri zen. 10:00ak edo 11:00ak aldera, Erretentxura eraman gintuzten, hango babeslekura. Giroa lasaitu zenean irten ginen. Olea bere semea besoetan hilik zeramala ikusi genuen, hilerrirantz. Arratsaldean berriro agertu ziren hegazkinak. Ehiha-hegakinak ziren. Jendea metrailatzen zuten, eta zangetan sartu ginen. Oso bazu zihozten, pilotuak ikusi ahal ziren. Beldur handia genuen. Be-

ti Anbotora begira geunden, ea hegazkinik bazetorren beldurrez. Azken aldiz, Gernika bonbardatzeraz joan zirenekoan ikusi nituen.

Gerrako umea ere izan zinen, ezta? Zelan egin zenuten ihesi Durangotik?
Martin: Bilbon, itsasontzi ba-

“Guri tabike bat jausi zitzaigun etxean, eskailerara. Horregatik, ezin ginen bajatu”

“Jendea metrailatzen zuten, eta zangetan sartu ginen. Oso baju zihozten”

Zelan egin zenioten aurre Frankismoko bizimoduari?

Martin: Pinaburuak eta egurra saltzen atera ginen aurrera, aita lanean hasi arte. Amak euskaraz bazekien, baina atxilotu zuten... beldurra zegoen. Aparte, Durangon ez zen euskara askorik berba egiten, eremu kartista zen eta.

Bestalde, anekdota bitxi samar bat duzu, arerioekin elkarbizitzaz.

Martin: Guardia Zibilaren kapitain bat gure bizilaguna zen, eta ondo moldatzen ginen. Gure etxera etortzen zen telebista ikustera; gauerdiko partea helzten zenean, seinalea moztzen nuen, eta hark bazekien zergatik zen.

Langile zinela garatutako greba baten ondorioz, preso ere egon zinen denboraldi batez.

Martin: Durangon greba itzel bat egon zen. Asko Guardia Zibilaren kuartelera eraman zituzten.

“Martin, entregatzen bazara, greba amaitek da Durangon”, esan zidan batek. Komisariara joan, eta esan zidaten zita neukala hurrengo egunerako. Baina, biharamunean, Guardia Zibilak etorri eta Bilbora eraman ninduten; egun bi eman nituen La Salven. Handik, kartzelara, Jaenen. Hiru hile egon nintzen. Beldur handia pasatu nuen. Gauez ateratzen ninduten, auto batean sartu poliziek, eta harrobi batera eraman. Fusilatuko nindutela esaten zidaten.

Gero etxera bueltatzeko ordua heldu zen, eta igarri zenuten aldaketa...

Martin: Irunen, ama euskaraz berbetan zegoen, eta kartzelara sartu zuten. Botere handia zeukan Satrustegi izeneko batek lagunduta askatu zuten. Durangora etorri, eta ez ziguten pisurik ematen. Kartista baten etxean hartu gintuzten. ‘Karliten etxe hau errespetatu ezazu’ zioen plaka bat zegoen.

Maite, etxean zelan jaso duzue zuen senideek bonbardaketan eta gerran bizitakoa?

Maite: Nik txikitatik dudana oroitzapena da gu ez ginela beste berdinak. Banekien gerra galdutakoak ginela, baina ideal batzurengatik borrokan jarraitu zuen familia batekoa nintzela ere bai. Ez dut bizi izan gerra-rekiko gorroto eta mendeku modura. Ideial horien baitan gu

hezen jarraitu zuten, duintasunean. Langileen seme-alabak gara; eurengeatik gara garena. Herriarekiko konpromisoa hezi izan gaituzte. Beti izan gara baztertuak; Durangon Barreña izatea ez zen neutroa. Hala ere, gurasoek ez ziguten mendekua elikatu; beti izan dira eskuzabalak eta langileak.

Bonbardaketaren lekukoena kasu askotan, isilean eraman da sufrimendua, traumagatik eta beldurreratik. Badirudi eten bat gertatu zela egun hartan Durangoren historian.

Maite: Esango nuke gure etxean ez dela etenik egon. Gerra galdu eta frankismoa mantendu arren, guretzat ez zen izan itxilatuko prozesu bat, borrokatzen jarraitzen genuen. Itsasoren amak konpromiso politikoa hartu zuen ikastera joaterakoan; Martin atxilotu zutenean hiru hile zituen Itsasok. Nik nire aitagaz korrika egin behar izan dut manifestazioetan. Borroka askatuz lortzeko bide lez irudikatu izan dugu beti, ametsak lortzeko bide bakarra baita konpromiso sozial eta politikoa.

Martin: Gu beti izan gara jazarriak Durangon. Anaia bat anarkista zen eta Durangoko aguzilen hilketa leporatzen zioten; etxea 15 egunero miatzen zuten.

Langile zinela garatutako greba baten ondorioz, preso ere egon zinen denboraldi batez.

Martin: Durangon greba itzel bat egon zen. Asko Guardia Zibilaren kuartelera eraman zituzten.

Langile zinela garatutako greba baten ondorioz, preso ere egon zinen denboraldi batez.

Martin: Durangon greba itzel bat egon zen. Asko Guardia Zibilaren kuartelera eraman zituzten.

Hirugarren belaunaldikoa zara, Itsaso. Zelan heldu zaizu gertakarien kontakizuna?

Itsaso: Beste modu baten bizi izan dut. Istorioak askotan en-

“Betiz izan gara baztertuak; Durangon Barreña izatea ez da neutroa”

“Kontatzen duenean ume bat zenean beldurra pasatu zuela, hunkitu egiten naiz”

tzun ditut, baina zaila da momentu hori zeuk bizitzea. Ez duzu imajinatzen horrelako gauzak pasatzea duela ez hainbeste urte. Denok dakigu osaba Nicolasen istorioa, ez dela agertu, bala ibili direla leku guztietan... Aititeri entzundakoa da: ‘Seme bat baduzu, Nicolas deitu dadila’. Zuek pasatu duzuen sufrimendua guri ez zaigu transmititu. Hori bai, aititek kontatzen duenean ume bat zenean beldurra pasatu zuela bonbardaketan, benetan hunkitzen naiz.

Aitite Martinek kontatzen dizkizu kontak ala zuk galdetu izan duzu?

Itsaso: Aititeri gustatzen zaio kontatzea. Bazkaltzen-eta oroitzen bat badauka, kontatu egiten du, eta gero galderak sor-

tzen dira, kuriositatea izaten dugu. ‘Gerran pasatu genuen goseagaz!’, esaten dit aititek jana amaitzen ez badut.

Urte luze berba oso gutxi egin da Durangoko bonbardaketaz. Ordea, azken urteetan herri ekimenetik ikerketak eta omenaldiak antolatu izan dira. Orain, udalak kereila jarriko du egileen aurka. Zelan ikusten duzue prozesua?

Maite: Nik uste dut ematen diren pauso guztiak garrantzitsuak direla, baina, Durangon, zauriak itxi barik aurrerapausoak ematen ari dira kontu batzuetan. Zauriak itxeko, egia guztiak eta benetakoak kontatzea beharrezkoa da. Erantzukizun askoz zorrotzagoa eta sakonagoa eskatzen du. Herri honek egia, justizia eta erreparazioa behar ditu. Durangon egon dira batzuk, aitari-eta lanik ez ziena ematen, Barreña zirelako. Bartzuk aberastu egin dira, gorriak gineno lapurtzearren. Gure moduan, familia asko egon dira Durangon. Egia historiko bati lotutako zor bat dute gugaz.

Itsaso, aurrera begira zer pentsamendu uzten dizu familieren transmisioak?

Itsaso: Nire ama eta izeko Maite-eta sei seme-alaba dira, eta denek egin zituzten ikasketak. Euren bizimodua egin badute, atzean esfortzu bat dagoelako izan da. Haiek lortu badute, zergatik guk ez? Lezio bat da guretzat.



Martinen berbak adi entzuten ditu Itsasok. Nekane Barreña

“Beldur itzela pasa genuen. Hilerrira bidean kamioiak hildakoz beteta pasatzen ikusten genituen. Montorretan tiroak eta ametrailamenduak entzuten ziren”

ALBERTO BARREÑA | Durango, 1924-2017



Nicolas Barreña, gaztetan ateratako argazkian.

Nicolas Barreña, gerran desagertua, baina ez ahaztua

Martinen anaia anarkista desagertu egin zen, eta senideek ezin izan dute jakin non dagoen

> M31 M.O.

Gerra Zibilean Malatesta batailoio anarkistako kide izan zen Nicolas Barreña durangarra. Preso jausi zen, eta Santanderreko Sardineroko kontzentrazio eremuan eduki zuten. Geroztik ez dago bere inguruko berririk, desagertu egin zen. Bere hurrekoek duten azken informazioaren arabera, kontzentrazio eremutik alde egin zuen. Baina, han eta hemen bilatzen ibili arren, senideek ez dute bere arrastorik topatu. “Seguruena hil egingo zuten, fusilatutik edo ihesean zihola. Gainera, gaia ezkutatu bakarrik ez, Errusiara alde egin zuela esaten ziguten! Bere gurasoak eta neba-arrebak zer gertatu zen jakin barik hil dira”, azaldu du Maite Barreñak.

Plakari buruz

Gerran hildakoen omenez hilerrian dagoen plakan oroitzen da Nicolas, baina senideak ez daude horregaz gustura, Maitek dioenez. “Hildako bakoitzaren atzetik istorio bat dago, guztiekiko sufrimendua suposatzen du, baina ez dugu inoiz ulertu gure osaba plaka berean faxistekin ipintzea; gauzak nahasten ditu”. Hari beretik jarraitu du Martinek: “Niri ez zitzaidan ezer gustatu plaka, eta segurua nago nire anaiari ere ez zitzaiola gustatuko”.

Zaila den arren, argitzea esperoantzarik ez dute galdutako. “Osabaren presentzia beti egon da. Bazegoen egia bat ezin zena kontatu, baina horren lekukoa geneukan. Etxean beti izan ditugu iku-



“Santa Anan geundela hasi ziren bonbardatzen. Beldurtzen hasi ginen, baina pentsatzen genuen han oso ondo geundela, elizarik ez zutela apurtuko”

JONE BELAUSTEGOITIA | Durango, 1919-2010





MIGUEL ZUGAZA MIRANDA
Arte Ederren Museoko zuzendaria

Betiko

Oraindik ere harritu egiten nau nolako naturaltasunez egiten den, urtero, 1937an Durangon izandako bonbardaketetako gertakari larrien oroimen publikoa. Gure seme-alabek ezagutzen dute abiazio italiarrak bando nazionalaren zerbitzura egindako atentatu basatiaren istorioa, eta gainera, orain badakigu bonbardaketa hori gaur egungo gerretako lehenengoetakoa eta suntsitzailenetakoa izan zela populazio zibilaren aurka.

Harritu egiten nauela diot, haurrak ginenean, frankismo garaian, ez zelako gertakari horiei buruz hitz egiten, ezta gerrari buruzkoei ere, ez etxean, ez eskolan. Egia esan, historiako liburuetan ere ez zen ezer aipatzen.

Oraindik gogoan dut nola-ko eragina izan zuen nigan ETBk ekolozitutako dokumental batek. Herritar ezagunen artean, Demetrio Arrinda eta Carmen Gorrotxategi zeuden, gure ikaskide eta jolaskide izandako Pedro Pabloan eta Xabierren gurasoak. Harrigarria egin zitzaidan haiek etxeko sofán eserita ikustea, berezkoa zuten apaltasunez, sekula kontatu ez zutena kontatzen. Kontatu ziguten euren atsekabe eta heriotz esperientzia, haurtoarora bat-batean eten zien egun hartako esperientzia latza: Demetrioren arreba baten heriotza Andra Marian, eta Carmenen neba baten heriotza, Jesuitetan meza-mutil aritzen zenarena.

Hala ere, euren kontakizunean ez zegoen gorroto edo erremin izpirik. Eurei entzunda, biktimen garaipena etorri zitzaidan gogora. Eta, isiltasunak, beldurratetik edo errespetuagatik, garai-pen hori geroratu baino ez du egiten, egun batean hitzak agertu arte. Egun horretan egia azaleratzen da, omenaldi itxuran. Lezio bat biktima guztientzat, eta betiko.

“Aititek ez du ezer kontatu duela hiru-lau urtera arte, oroitzapen oso txarra dauka”

Bonbardaketan heriotzetik libratu zen Gregorio Urionaguena; gerora gudari izan zen, baita preso ere

> **M31** Markel Onaindia

Askoren memorian iltzatuta geratu den bonbardaketaren lekukoetako bat izan zen Gregorio Urionaguena. Babesleku batera bidean, beragaz zihoan laguna hiltzen ikusi zuen, hildakoen eta eraitziko etxean artean. Saraski hartan bizitako beldurra eta samina bere barruan gorde, eta horrela eraman ditu hamarkadetan zehar, beste inori kontatu ezinik. Duela urte gutxi hasi zen sufrimendu haren berri ematen, dagoeneko bere etxean bigarren belaunaldia loratua denean. 75 urtetik gora behar izan ditu Gregoriok memoriako kuxa latz hori zabaltzeko. Hantxe du, alboan, Itziar Urionaguena biloba, aititeren istorioa kasik sinetsi ezinik. “Harritzen gaitu zelan egon den orain arte ezer kontatu barik”, dio Itziarrek.

Bilobak azaldu du familian ez zekitela ezer gaiaz. “Aititek ez du ezer kontatu duela hiru-lau urtera arte; oso oroitzapen txarra dauka, eta beti isilean eraman du. Nire aitak eta osabek-eta ere ez dute ezer jakin”. Ikerlariak eta kazetariak deika hasi zirenean ekin zion lekukoak kontaketa, eta familia-arentzat ere ez zen erraza izan parrarte haiek ezagutzea. “Harrirituta eta estuasun sentsazioagaz” hartu zutela esan du bilobak. “Beldurgarria izan zela kontatzen du, dena izua eta kaosa zela. Esne-saltzaileak lurretik botata, astoak tripak aterata... izu sentsazio hori kontagiatzen digu”. Aititen kasuaz “harro eta aldi



Bonbardaketa azaltzeko, berak egindako mapa bat gordeta dauka Gregoriok.



berean apur bat haluzinatuta” dagoela dio Itziarrek.

Bonbak zerutik

Gregorioren lekukotza Durango 1936 elkartearen webgunean ikusi daiteke, bideoan (www.durango1936.org). Ikus-entzunezko horretan kontatzen du zelan ospitalean harrapatu zuen erasoak, eta lagun batez zer gertatzen zebilen ikustera irten zela. “Irten eta seguitan, gora begiratu eta bonbak jaurtitzen ikusi nituen”. Lehen erreakzioa

babesleku batera joatea izan zen. “Babeslekuaren parean, bizikleta lurrera bota, eta azkar sartu ginen barrura. Baina nire laguna bonba batek harrapatu

“**Beldurgarria izan zela kontatzen du, dena izua eta kaosa zela**”

“**Nire laguna bonba batek harrapatu zuen, eta hantxe hil zen**”

zuen, eta hantxe hil zen. Ni baino urte bi gazteagoa zen”. 20 urte zituen Gregoriok.

Orduak eman zituzten babeslekuan gordeta. Irten zirenean, “dena zen hildakoa”, Gregorioren berbetan. “Gorrono berri-tarraren kamioia Kirikiño batailoien zerbitzura zegoen,

eta zaurituak han kargatu genituen”, gogoratu du.

Abadiñon bizi zen orduan Gregorio, eta hara joan zen goizeko erasoaren ostean. “Arratsaldean berriro ere Durangora etortzea pentsatu nuen, zer gertatzen zen ikustera. Matienatik nentorrela, abiazioa ikusi nuen. Arbola ostean gorde nintzen, ordu erdiz. Oso baju pasatzen ziren abioiak, 50 metrora edo”.

Gero, gerrara joan zen Itziarren aitite, Euzko Indarra III. batailoiaz errepublikak defendatzen zela. Oso baju pasatzen ziren abioiak, 50 metrora edo”. Gero, gerrara joan zen Itziarren aitite, Euzko Indarra III. batailoiaz errepublikak defendatzen zela. Oso baju pasatzen ziren abioiak, 50 metrora edo”.

Gregorioren isiltasuna ez da kasu isolatua izan, eta Itziarrek dioenez, horretaz kulturatu dira etxekoak, beste lekuko batzuen senideekin berba egitean.

“Elorriok fronteagaz zuen lotura haustea gura zuten bonbardaketagaz”

1937ko martxoaren 31n, 8:30 inguruan bonbardatu zuten Elorrio, Durangogaz batera

> **M31** Maialen Zuazubiskar

Orain arte Elorrioko bonbardaketaren inguruan ezer gutxi jakin den arren, duela 80 urte bonbardaketan bizitako iker-tu eta gogora ekartzen dabil-tza, egunotan, herrian. Horren adierazle dira gaur Jon Ander Ramos historialariak egingo dituen bisita gidatuak eta udal-txean 20:00etan egingo duten oroimenerako ekitaldia.

Zer gertatu zen 1937ko martxoaren 31n Elorrioren?

Soriatik abiatu eta Durangaldera Debagoienetik sartu ziren Italiar Aviazione Legendaria he-gazkinek Elorrio bonbardatu zuten, Durangogaz batera, 8:30 inguruan. Martxoaren 31n, erasoaldi bateratu batean, 213 eta 214 eskuadrilek Elorrio eta Durango jomuga zituztelarik, herri biak suntsitu zituzten.

Herriaren kanpoaldea suntsitu-ta gelditu zen.

Bai, batez ere, Eleizalde inguru. Jaurti zituzten bonben ehuneko laurogei bertan lehertu zen. Martxoaren 31n egindako sarraskiagaz, Elorriok eta Durangok fronteagaz zuten lotura haustea gura zutela jakin bada-kigu. Bonbardaketekin, Arrasatera eta Elgetara zihoazen erre-pide nagusiak txikitzea zutela helburu ikusi daiteke.

Elorrioko Alde Zaharra ez zu-ten askorik kaltetu. Beraz, esan daiteke horrek Durangon bai-no hildako gutxiago egotea ekarri zuela?

Baliteke. Egia da Elorrioko Alde Zaharra ez zela askorik kaltetu, baina herri erdigunean hainbat bonba erori ziren. Esaterako, Berrio Otxoa kalean dagoen *Fonda La Paz* bonbaren bat lehertu zen, eta kale horretan bertan hiruzpialau bonba gehi-ago ere erori zirela jakin badaki-gu. Gainera, Durangon ez beza-la, bonbak ez ziren, ez elizan, ez komentuan erori. Beraz, horrek guztiak hildako gutxiago ego-tea ekarriko zuen. Dakigunez, 1937ko martxoaren 31ko bonbar-daketan zazpi herritar hil ziren.



Jon Ander Ramosek bisita gidatuak egingo ditu.

Gerrak ze eragin izan zuen elorriarengan?

Hainbat ondorio ekarri zien gerrak herritarrei. Esaterako, herriko hainbat eraikinen fun-tzioak aldatu egin zituzten ga-rai hartan. Herriko komentu eta elizak kuarter modura era-gibili zituzten, milizianoen leku bihurtu ziren. Casa Jara jaure-gian, berriz, *Comandancia de Guerra de Euzkadi*-k hartu zuen leku, eta Larizko dorretxea Gu-tertzeko ospitala jarri zu-ten, besteak beste. Hori horrela, eta herriko eliza okupaturik ze-

Frontearen mugan zegoen he-rria zen Elorrio.

Frontearen ondoan zegoenez, Elorriok hilabete luzez paira-tu zituen gerraren ondorioak. 1936ko irailetik frontea Intxor-tan kokatuta zegoen, eta Intxor-tan gertatutako borroken eta bertatik herrira jaurtitako bon-ben ondorioz, herritar batzuk hil ziren.

Horrez gain, Elorrio errefuxia-tuen gotorleku garrantzitsua izan zela esan daiteke?

Frontearen mugan zegoen he-rria zenez, Elorriok gerratik ihesi zetozen hainbat gipuzkoar

“**Garai hartan, Elorriok 3.704 biztanle zituen, eta 2.131 errefuxiatu etorri ziren**”

“**1937ko martxoaren 31ko bonbardaketan zazpi herritar hil zituzten Elorrioren**”

errefuxiatu hartu behar izan zituen. Garai hartan, Elorriok 3.704 biztanle zituen, eta gerra-tik ihesi zetozen 2.131 errefuxia-tu gipuzkoar hartu behar izan zituen. Beraz, argi dagoena da, Mola jeneralaren aginduz, mar-txoaren 31ko bonbardaketagaz herriak fronteagaz zuten lotura apurtzea gura zutela italiar fa-xistek.

Bukatzeko, zer aurkituko dute bisita gidatuetara doazen he-rritarrek?

Bisita hauen asmoa bonbarda-ketaren gaia gizarteratzea da. Berrio Otxoa kalea abiapuntu hartuta, bonbardaketaren hon-darrak dauden herriko zenbait gune ikusi eta Elorriok bonbar-daketa garaian pairatu zuena azalduko dugu.



P. PABLO ARRINDA GORROTXATEGI
Irakaslea

Durangoko bonbardaketa

Bonbardaketari buruzko hurbilketa modu askotara eman daiteke. Badaukagu ikuspuntu historikoa: ikerketaren metodoan oinarrituta, zientifikoa esango nuke. Zehaztasunez egindako bidea da eta eztabaidarako aukera askorik ematen ez duena. Ezagunak dira, zentzu honetan, Gerediaga elkarteak eta Jon Irazabalek egindako makina bat ekarpen interesgarri eta argigarri.

Bestetik, ez dugu ahaztu behar perspektiba ideologikoa ere badaukagula. Kasu honetan, gertatutako pasarte historikoak aztertzerakoan, gure gogo eta pentsamoldeekin bat egiten dugu: izandako ekintzak onartzera edo gaitzestera garamatzen bidea da, balorazio etikoetara hurreratzeko dena, eztabaidarako zelai emankorretan sartzen gaituzte, azken finean. Eta ematen ez badu ere, alde objektibo nabarmenak izan ditzakeena: Giza Eskubideen errespetua, esaterako. Kasu honetan eskertzekoa da Durango 1936 elkartearen egiten ari den lan bikaina.

Bonbardaketaren urteurrenean 3. bide bat aipatzea gustatuko litzaidake: sentimenduak

Baina bonbardaketaren urteurrenean hirugarren bide bat aipatzea gustatuko litzaidake: sentimenduak gerturatzearena. Ez da metodo zientifikoa edo ikuspuntu ideologikoa oinarritzen, pertsona bakoitzak bere barnean sentitzen duen ezintasunean, atsekabeen eta tristuraren baizik. Isiltasunez ematen diren malko ikusizinetan alegia. Horientzat dira lerro hauek.



“**Amak hartu ninduen, eta arineketa batean, gure denda aurretik eta Jesuiten ondotik, Achicorias Momoitio enpresan egokitu zuten babeslekura joan ginen**”

JUANITO GALLASTEGI | Durango, 1933

“**Denda apurtu zela gogoratzen dut. Bonbardaketaren ondoren, Abadiñoko Bizketxe baserrira joan ginen. Ama haurdun zegoen, eta bertan erditu zen**”

ESKARNE AROMA | Durango, 1934

